Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2022ko irailaren 21eko 20:00etan, Erroibarko Udala bildu zen bilkura arrunta, lehen deialdian, egiteko. Bertaratuak: Jose Maria Eciolaza Ochoa, Teresa Bidaurreta Azkarate, Miren Nekane Nuño Iturri, Ainara Ekisoain Erro eta Leire Remiro Esnoz zinegotziak, bilkura buru, alkatea, Enrique Garrada Erro izan zen,

eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Juan Luis Gil Garcia zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

Bilkurari hasiera eman baino lehen EH-Bildu Taldeko zinegotziak, Ekisoain, Haize Morea taldeko zinegotziak, Remiro, eta alkateak, Garralda, bilkura grabatuko dutela esan dute.

### **1.- 2022ko MAIATZAREN 27KO, EKAINAREN 22KO ETA UZTAILAREN 29KO BILKURETAKO AKTAK ONESTEA**

Aho batez erabaki da 2022ko maiatzaren 27ko akta onartzea.

Aho batez erabaki da 2022ko ekainaren 22ko akta onartzea.

Aho batez erabaki da 2022ko uztailaren 29ko akta onartzea.

Remiro zinegotziak galdetu du zertan den aktak web orrian argitaratzearen afera, 2022ko aktak ez baitaude argitaratuak. Idazkariak erantzun du bazeudela baina Animsak izandako eraso zibernetikoaren ondorioz desagertu zirela. Dena den, berriro argitaratu dira.

### **2.- 2022ko EKAINAREN 18tik IRAILAREN 16a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak, Garralda jk., 2022ko ekainaren 18tik irailaren 16a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Udalkideak jakitun dira.

Remiro zinegotziak ebazpen hauei buruzko informazioa eskatu du:

139/2022 ebazpena, aldagelak eraikitzeke Bizkarreteko Kontzejuari egin beharreko ekarpen ekonomikoari buruzko ebazpenari dagokionez, itzuli beharrik gabekoa den eta kontrapartidarik duen hitzarmenik dagoen galdetu du. Idazkariak erantzun du, idatzizko dokumenturik ez dagoen arren, ahoz erabaki zela obrak hasieran erabilera anitzeko areto bat izango zirela, baina, Udalak instalazioak erabili beharko balitu, kontzejuak erraztuko lukeela horien erabilera, eta lankidetzaz izango litzatekeela.

143/2022 ebazpena, Erroibarko Egunekeo tabernari buruzkoa, galdetu du zenbat eskaintza egon ziren eta alkateak erantzun du bitan atera zela, lehenengoan oinarrizko prezioa 300 € zela eta hutsik gelditu zela, eta, hortaz igo behar izan zela, 500 eurora, eta prezio horretan eskaintza bakarra aurkeztu zela.

149/2022 ebazpena, hirigintza dokumentazioaren errekerimendua eta emandako epea, galdetu du erantzun den eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu den, eta alkateak baietz erantzun du, izan ere lizentzia emana dago.

162 eta 163/2022 ebazpenak, Artekarriekin irekitako espedienteari buruzkoak, idazkariak erantzun du erreklamaziogileek dokumentazioaren zati bat aurkeztu dutela, baina ez laguntzak justifikatzeko behar zen guztia; izan ere, eskolara joan izanaren frogagiria falta zen, baina uda zenez eta ikastetxeak itxita zeudenez, epea luzatu zitzaizen eskatu eta aurkeztu ahal izan zuten arte.

174/2022 ebazpena, ZUTARRI gazte elkartearen eskaerari buruzkoa, fidantzari buruz hitz egiten da, baina zero eurokoa da kalteengatik, eta galdetzen du ea ikuskapena egiten den eta nork egiten duen ebazpenean jasotakoa betetzen den ala ez jakiteko. Erantzun zaio ebazpenean jartzen duena dela lan egin ohi den eredia eta agoazila arduratzen dela gauza horiek guztiak frogatzeaz.

182/2022 ebazpena, Gurbizarren egindako baimenik gabeko obrei buruzkoa, geldiarazitako obren argazkiak eskatu nahi ditu, eta galdetu du ea udalak zerbait egingo duen eta zer motako esku hartzea izango den. Alkateak erantzun du gaiari buruz lanean ari direla, eta Nafarroako Gobernuko Ondarearekin hitz egin dela, bera baita lurren titularra, baita obren egilearekin eta Gobernuko zaindarekin eta Sepronarekin. Azken horrek eginbideak irekiko ditu obren egilearen aurka, agindutakoa ez betetzeagatik.

Ekisoain zinegotziak ebazpen honi buruzko informazioa eskatu du:

190/2022 Ebazpena, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren gaineko berraztertze errekurtsoaren ebazpenari buruzkoa. Idazkariak erantzun du lurzoruaren balioa zergapetzen duen zerga dela eta pertsona batek errekurritu egin duela aplikatu zaionarekin ados ez zegoelako. Udalak ezetsi egin du.

### **3.- HASIERA BATEAN ONESTEA 2021EKO KONTUEN TXOSTENA.**

Garralda alkateak jakinarazi du, Kontu Batzordean azaldutakoarekin bat etorritik eta beste argibideren bat eskatu ezean, bidezkoa dela 2021eko ekitaldiko kontuen espedienteari hasierako onespina ematea.

Eztabaidatu ondoren erabaki da aldeko 6 botoz eta abstentzio batez (Remiro), bilkurako espedientearen dagoen 2021eko kontuen txostena hasiera batean onartzea eta jendaurrean jartzea hamabost egunez alegazioak aurkeztu ahal izateko.

### **4.- 2022/2023 BASO-JARDUEREN PROIEKTUA BERRESTEA**

Garralda alkateak hartu du hitza, eta 2022-2023 baso-kanpainarako eskatutako baso-jarduketan berri eman du. Ez dira asko izan, egin beharreko obra gehienak Barra erauntsiaren laguntzetarako aurkeztutako proiektuan sartu direlako, eta batzordean erabakitakoaren arabera. Obra horien bidez, sasi-garbiketarako egingo dira Sorogainen, eta itxitura bat da Adiko igoeran. Proiektuaren kostua 46.983,71 €-koa da, eta proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko kostuak, berriz, 5.719,19 €-koa, gehi BEZa.

1º.- Aho batez erabaki da Basarteak diatzi duen 2022/2023 baso jardueren proiektua onartzea, haren aurrekontu osoa 52.702,90 € dela.

2º.- Gastua 2022ko baso-jarduketan partidaren kontura eta 2023ko aurrekontu-partidaren kontura onartzea erabaki da.

## **5.- 2022/2023 ABELTZAINZA AZPIEGITURETAN EGINEN DIREN JARDUKETAK ONARTZEA**

Garralda alkateak hartu du hitza, eta 2022-2023 baso-kanpainarako eskatutako abeltzaintzako azpiegituren berri eman du, batzordean erabakitakoaren arabera: mahuka berri bat, Zelaietako mahukaren konponketa eta Adiko bi aska abereentzat, ura metatu behar delako. Obra horiek, askak izan ezik, iazko espedientean sartu ziren, baina ez ziren gauzatu, proiektuaren kostua 46.983,71 € izan zen, eta proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko kostuak 5.719,19 € gehi BEZa.

Remiro zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du zinegotzi batek ezin duenean batzordera joan eta horri buruzko inolako informaziorik jasotzen ez duenean, ez dakiela zer landuko eta erabakiko den, eta horregatik abstenitu egingo dela bozketan. Hori dela eta, komenigarria litzateke, batez ere udalean pertsona bakarreko taldeak daudenean, informazioa ematea gaia osoko bilkuran aztertuko denean. Alkateak erantzun du proiektua prestatzen ari dela eta ez dagoela ezer idatzia.

Aldeko sei botorekin eta abstentzio batekin (Remiro zinegotzia) batzordean adostutako 2022/2023 baso-jarduerak onartzea erabaki da. Horietatik gehienak Basarteak iaz idatzitako proiektuan aurreikusita zeuden.

## **6.- FILOMENA ERAUNTSIA. EGIN BEHARREKO LANEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA.**

Garralda alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Estatuak aurkeztutako proiektuaren kostuaren % 50eko dirulaguntza eman diola udalari, proiektu osoaren kostua 107.789 eurokoa denean. Lau bide onartu dira, Aurizberrin eta Orondritzen ur-biltegietara doazen bideak, Erro/Zilbetin abeltzaintzako nabeetara iristeko bidea eta Lintzoainen Tiratungo pista.

Obren esleipena Udalak egin behar du. Proiektua bakarra da, baina bitan bereiziko da: batetik, Aurizberri, Orondritz eta Erro/Zilbetiko bideak, eta, bestetik, Lintzoaingo. Izan ere, Lintzoaingo Kontzejua baso-jarduketan laguntzen bidez Filomena erauntsia dela eta diruz lagundutako bidearen beste zati bat egiten ari dela aprobetxatuz, komenigarria da obrak egitea, eta kontzejuak kontratatutako enpresa berari esleitzea. Gainerako bideen kostua kontuan hartuta, Kontratazio Atarian iragarki jarrita adjudikatuko dira. Esleipen horien berri eman behar zaio Nafarroako Gobernuari, laguntza horietan Estatuaren bitartekari lanak egiten baititu, urriaren 31 baino lehen, eta horregatik onartu behar dira bilkura honetan baldintzen agiriak. Idazkariak argitu du egin beharreko obrak kontzejuen eskumenekoak direla, baina dirulaguntza eskuratu nahi izanez gero, Udalak eskatu eta izapidetu behar zituela, bestela ezinezkoa zelako, eta, beraz, horien kostua kontzejuei ordaintzea dagokiela, Aurizberriko eta Orondritzko ur-biltegietarako bideen konponketa izan ezik; izan ere, uraren gaia udalaren eskumena denez, kasu honetan udalak bere gain hartuko du kostua.

Aho batez erabaki da Filomena erauntsiaren eta Barra erauntsiaren ondoriozko obrak esleitzeko baldintza-agiriak onartzea, eta Nafarroako Kontratazio Atarian eta Plataforma Plenari argitaratzea, eta kontzejuekin hitzarmenak sinatzea, haien zatia ordaintzeko konpromisoa har dezaten.

#### **7.- ESKOLA GARRAIOA: EBAZPENA BERRESTEA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUAREKIN HITZARMENA SINATZEA.**

Alkateak hartu du hitza eta Proiektu Estrategikotako Departamentuarekin eta garraioa erabiltzen duten ikasleen gurasoekin izandako bileraren berri eman du. Bilera horretan erabaki zen Udala proiektuaren buru izango zela Proiektu Estrategikoen proposamenez, eta departamentu horrek diruz lagunduko zuela dagokion hitzarmena sinatuz. Kontratuen Legea betetzeko, irailetik abendura bitartean, Erroibarko Udalak, eskualdatu ondoren, zerbitzuaren zati baten kostua bere gain hartuko du, eta Auritzeko Udalak beste zatia. Horrela, bi udalen artean eta dirulaguntza iritsi arte (dirulaguntza Erroibarrera iritsiko da), zerbitzu hori bere gain hartu eta ordainduko da. Urtarriletik ekainera zerbitzua adjudikatu beharko da, dagokion plegua onetsiz eta Kontratazio Atariaren bidez bideratuz. Hitzarmena ez dago oraindik idatzia, Proiektu Estrategikotako Departamentua prestatzen ari da eta, egina dagoenean, udalari igorriko diote. Alkateak hasierako ebazpena eman zuen Juan Ignacio Ayarra Ilinchetaren izenean. Ebazpen hori aldatu egin da eta Mikel Etxarriri ostiraletako itzulerako ibilbidearen ardura hartzen duela gehitu zaio. Zerbitzuaren kostua irailetik abenduar horrela banatzen da: 13.595,00 € gehi BEZa Ayarra jaunarentzako eta 636,00 € gehi BEZa Echarri jaunarentzako.

Lau taxilari dira zerbitzu osoa emateko.

Remiro zinegotziak hitza hartu du eta gaineratu du zerbitzuaren kostua Proiektu Estrategikotako Departamentuaren laguntzarekin ez ezik, gurasoei Hezkuntzak emango dizkien zuzeneko laguntzekin ere ordainduko dela. Laguntza horiek Erroibarko Udalari eman beharko dizkiote, eta ez dago kontularitza-arazorik horretarako, idazkariak jakinarazi duenez. Arazo bat dago Hezkuntzak ez duelako familia bakoitzak jasoko dituen laguntzei buruzko informaziorik ematen, eta Proiektu Estrategikoen eta Hezkuntzaren artean egin behar zen bilerarik ere ez da egin.

Aho batez erabaki da irailaren 5eko 184/2022 Ebazpena berrestea, Erroibar, Artzibar, Garralda eta Aurizko udalerrietako gazteek irailetik abendura bitartean (biak barne) oinarrizko lanbide-heziketako eta lanbide-heziketako eta batxilergoko (derrigorrezkoa ez den hezkuntza) eskola-garraioko zerbitzuak gauzatzeari buruzkoa.

#### **8.- EHBILDU ERROIBAR TALDEAK KALITATEZKO SISTEMA PUBLIKOAREN ALDE AURKEZTU DUEN MOZIOA.**



Nuño zinegotziak hitza hartu du eta argitu du mozioa ez duela bere taldeak sustatu, baizik eta Nafarroako Osasun Plataformak eta ez Bilduk, Udal guztien adostasuna eskatzen ari baita.

Aho batez erabaki da jarraian transkribatu den mozioa onartzea eta Nafarroako Osasun Plataformari igortzea:

### **KALITATEZKO SISTEMA PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA.**

*Osasun sistema publikoa hondatzen ari dela jabetuta, Erroibarko udalaren osoko bilkurak mozio instituzional hau onartu du, gure osasun sistema publikoa babestera eta Nafarroako Gobernuari honako puntu hauek bete ditzala eskatzera bideratua:*

*Lehenengoa: Oinarrizko Osasun Laguntza eta Osasun Publikoa indartzea, behar diren langile, baliabide ekonomiko, material eta antolamenduzkoez hornituta; aldi berean, behar adinako inbertsioa egitea, Oinarrizko Osasun Laguntzak kalitatezko arreta eman dezakeela bermatzeko, funtsean Osasunaren Mundu Erakundeak adierazten duena aintzat hartuta, urte anitzeko plan batean aurrera egitea eskatzen dugu, urrats sendoak emanez 5 urtean lehen mailako arretarako osasun-aurrekontuaren % 25 lortu arte.*

*Bigarrena: deribazioak eta itunak etetea osasun pribatuarekin. Gure ustez, politika aktiboari dagokionez, ez da egokia gobernuaren lankidetzak, arlo sanitarioan, ikerketan eta abarretan lankidetzak publiko-pribatuaren esparruan, azken batean sistema publikoa deskapitalizatu eta negozio pribatuak indartzen baititu.*

*Hirugarrena: plantillak finkatzea Nafarroako Osasun Zerbitzuan plantilla egonkorrak eta kalitatezko lan duina lortzeko, hala, Europar Batasunak behin-behinekotasuna gehienez 8ra mugatzeko eskatzen duena betez. Medikuen bajak eta ordezkapenak betetzeko baliabide guztiak jartzea.*

*Laugarrena: hirugarren adinekoentzako arreta-eredu publiko baterantz egindako aurrerapauso egiaztagarriak, ahal dela pertsonak beren ingurunean mantentzeko, eta ez makrozentroetan, osasun-sistema publikoak arreta emango diela bermatuta. Beste eredu alternatibo bat finkatzen ez den bitartean, egoitzetan kontrol publiko handiagoa eta kudeaketa gardenagoa eskatzen dugu, bai eta plantillen lan-prekarietatea desagerraraztea ere, zerbitzu ona lortzeko.*

*Bosgarrena: Osasun mentaleko sistema birformulatzea eta prebentziora bideratzea. Sistema horrek baliabide publiko nahikoak izan behar ditu herritarren beharrei erantzuteko, eta behar horiek areagotu egin behar dira Covid pandemiaren ondorioetarako. Gaur egun gertatzen dena ez da onargarria, alegia, baliabide sozio-sanitarioetan, egoitzetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan eskaintza publikorik ez egotea, Kontuen Ganberak Osasun Mentalari buruzko fiskalizazio txostenean (2014-2019) zioena aintzat hartuta. Gabezia hori zerbitzuen pribatizazioarekin konpontzen du Nafarroako Gobernuak.*

*Seigarrena: Ezinbestekoa da Osasunari buruzko Foru Lege berri bat izatea, gure osasun-sistema publikoa gure herri eta auzoetako osasun-arretaren eta zaintzaren beharrak asetzeko prestatuta dagoela bermatzeko.*

*Osasun unibertsaleko, publikoko, ekitatiboko eta kalitatezko arreta baten bidez bakarrik bermatu ahal izango dugu gure etorkizuna, eta gure udalek hura egiten parte hartzearen alde egiten dugu, printzipio horiek Osasunari buruzko Foru Lege berri eta urgentean jasota gera daitezten.*

**Gai-zerrendatik kanpo, aho batez erabaki da gai hauek aztertzea: alde batetik, plantilla organikoa behin betiko onartzea, eta, bestetik, Udal Planaren Ordenantzaren VII. kapituluko 51. artikulua aldatzea (jarduera ekonomikoaren baldintza bereziak).**

2022ko plantilla organikoari dagokionez, alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartzea erabaki da.

Udal Planaren Ordenantzaren 51. artikulua aldatzeari dagokionez, alkateak irakurri du eta idazkera aldatu behar dela jakinarazi du. Udal arkitektoarekin eta Erroibarko bizilagunekin hitz egin du, izan ere, bailaran gertatzen den arazoa da eta idazketa aldatuz eta indarrean dauden legeak betez konpon daiteke, jarduera bakoitzak bere araudia baitu.

#### **51. artikulua.-**

*“Ostalaritza-establezimenduek, hau da, ostatu, taberna, jatetxe, elkarte gastronomiko eta antzeko establezimenduek, gutxienez, 15 m<sup>2</sup>-ko erabiltzaile-gune bat eta eremu publikotik aparteko bi komun izango dituzte, andreentzako eta gizonentzako aurrekomun bidez, konketa eta komunez hornituak.*

Idazketa berria hau izatea proposatu da:

*“Ostalaritza-establezimenduek, hau da, ostatu, taberna, jatetxe, elkarte gastronomiko eta antzeko establezimenduek komun kopurua eta horien baldintzak izango dituzte, kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren arabera.”*

Aldeko sei botoz eta Remiro zinegotziaren abestentziaz Udal Planaren Ordenantzaren 51. Artikulua aldatzea erabaki da eta idazketa hau izatea:

*“Ostalaritza-establezimenduek, hau da, ostatu, taberna, jatetxe, elkarte gastronomiko eta antzeko establezimenduek komun kopurua eta horien baldintzak izango dituzte, kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren arabera.”*

Remiro zinegotziak hitza hartu du eta esan du uste zuela patroï festari buruzko erabakiaz hitz egin behar zela, txostenean gai horri buruzko agiria agertzen zelako. Idazkariak erantzun du aztertu beharreko gaia zela, baina gai-zerrenda idatzi zuenean, ez daki zergatik ez zuen deialdian sartu, baina bai espedientean, hala barneratuta zuelako. Nolanahi ere, jakinarazi da hurrengo saioan hitz egingo dela, eta festa hori Auritz eta Orreagarekin adostutako data berean egin behar dela

## **9.- BESTERIK**

Garralda alkateak hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

### **Urrobi Partzuergoa**

Erroibarko Udalak eta Aezkoako Batzarrak Nausvinsarekin bihar, hilak 22, 14:00etan, egingo duten bileraren berri eman du alkateak. Bertan, Urrobi poligonoari eta hura kudeatzeko aukerei buruz hitz egingo dute, Nasuvinsan hura kudeatzeko figura sar dadin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Barra erauntsiarentzako diru-laguntzak**

Alkateak Estatuaren ebazpenaren berri eman du, aurkeztutako obren kostuaren % 50 emanez. Diru-laguntza hori Nafarroako Gobernuak onetsitako beste deialdi batekin bateragarria da, nahiz eta azken hori oraindik ebatzia ez dagoen.

Erro-Zilbeti kontzejua, 51.101,50 €, 102.203 euroen %50.

Aurizberriko kontzejua, 65.652,91 €, 136.260,76 euroen %50

Erroibarko Udala, 204.486 €, 408.966 euroen %50

Esnozko kontzejua, 5.342,60 €, 10.685,21 euroen %50

Lan horiek osagarriak dira Nafarroako Gobernuak kontzeptu horiengatik deitu dituen baina oraindik ebatzi ez diren laguntzekin, eta Estatukoetara ere aurkeztuz gero bakarrik eska zitezkeen. Horiek guztiak, Udalarenak izan ezik, kontzejuen eskumenekoak dira, baina Filomena laguntzetan bezala, Udalaren bidez baino ezin ziren eskatu. Dena den Nafarroako Gobernuaren ebazpenari itxoin beharko zaio, bestela zaila baita lanen kostuei aurre egitea.

Alkateak jakinarazi du Erro-Zilbeti kontzejuek lanak egiteko premia dutela, bideak oso egoera txarrean baitaude, baina berak uste du hobe dela itxoitea Nafarroako Gobernuak diru-laguntza emanen duen jakin arte. Heldu den astelehenean bilera eginen da bi kontzejuekin horretaz hitz egiteko.

Eciolaza zinegotziak hartu du hitza, eta Barra erauntsiak eraman zuen eta Aurizberriko bizilagun batek konpondu zuen lurzatiaren baterakuntzeko bide bati buruz galdetu du, eta ea laguntza horietan sar daitekeen galdetu du. Erantzun zaio kontzejua diru-laguntza eskatu behar izan zuela, eta, eskatu ez bazuen orain ezin da sartu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Eraikin publikoen garbiketa**

Alkateak jakinarazi du garbiketaz arduratzen den langileak, Marmaun andreak, eszedentzia urte bat hartuko duela 2023ko abenduaren 31 arte. Hortaz, zerrendako pertsonen artean prest dagoen hurrengoa kontratatuko da, Iker Azcarate Leizabe, gaur bertan lanean hasiz, nahiz eta eszedentzia 29an hasi, baina opor egunak zituen hartzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Lintzoaingo obrak-mailegu/abala**

Alkateak jakinarazi du Lintzoaingo kontzejuak, baso-lanak egiteko eta bidea konpontzeko obrak direla eta, diruzaintzako mailegu bat hitzartu behar duela, epe laburrerako, sei hilabetekoa, eta bankuak abala eskatzen badio, Udalak abala eman diezaiola eskatu du. Remiro zinegotziak beste batzuetan horrelakorik gertatu den galdetu du eta idazkariak ezetz erantzun dio. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Ur eskasia**

Jasaten ari garen ur eskasia dela eta, alkateak arazoari irtenbidea emateko egindakoa jakinarazi du. Joan den urteko idorraldian 2,4 l/sg izan genuen. Aurten, data berdinetan, 1,16 l/sg daude. Ur jaitsiera ikaragarria da. Beheko iturburu batzuetatik ura hartu eta Lasturrera igo da, arazoa behin-behinean konponduta. Behin betiko irtenbidea Erro ibaiko ura hartzea da, Adiko atakaren parean, Odiako errekan, eta hodi lodi batekin Lasturrera eramatea. Horiek horrela, bilera eskatu du Lurraldearen Kohesioko Kontseilariarekin. Egoera oso txarra da, ura zisternen bidez eraman da gehienbat Bizkarretera, ur-biltegia toki altuenean duelako. Nuño zinegotziak galdetu du Mezkiritzen ureztatzeko murrizketak kendu diren eta ezetz erantzun zaio, oraindik ur nahikorik ez baitago, eta ureztatzeko murrizketak Mezkiritzen, Lintzoainen, Bizkarreta-Gerendiainen eta Uretan izan direla. *Remiro Esnoz zinegotziak dio berak ez duela horren berririk, zinegotzi den neurrian. Berak bandoa jaso zuen bere etxean, bizilagun guztiek bezala, eta ibar osoan banatutako bandoa zela uste zuen. Azpimarratu nahi du orain, osoko bilkuran, jakin duela bando diferenteak banatu direla herri desberdinetan eta neurri desberdinekin. Bere ustez udalbatzari informazioa modu egokian eman behar izan liezaioke.*

Bandoan ez da jartzen noiz arte, eta, hori ez dakigunez eta informazio-lerrorik mantentzen ez denez, jendea galdu egiten da, eta, denbora asko pasatu denez, uste da posible izango dela. Administrazioaren isiltasuna oso luzea izan dela uste du, eta informazio jarraituagoa eman beharko litzatekeela. Gainera, zinegotzi gisa, bando guztien berri izan beharko luke, galdetuz gero informazio zuzena jakiteko eta emateko, ez bakarrik bere herriari eragiten diona, legegintzaldi honetako lehen osoko bilkuran eskatu bezala. Eciolaza zinegotziak dio, bandoei dagokienez, Nafarroako Gobernuarekin gauza bera gertatzen dela, bandoa edo abisua iragartzen da baina gero ez dago abisu hori deuseztatzen duen beste bat. Alkateak dio ur murrizketak mantendu behar direla, iturriek ur gutxi dutelako, eta bandoei dagokienez, udalkide guztiei bando guztiak igorriko dizkielako konpromisoa hartu du.

Nuño eta Remiro zinegotzien ustez, gai honetarako berariazko batzorde bat deitu behar zen, azpiegitura eta larritasuna kontuan hartuta. Mezkiritzeko ur horniduraren murrizketari dagokionez, Remiro andreak galdetu du nola dagoen, eta alkateak erantzun du lagina hartzera etorri zirenean Nafarroako Gobernutik bidalitako pertsona ordezkapena egiten ari zela, eta etxe bateko lagina hartu beharrean, sarean ez dagoen iturri publiko batetik hartu zuela, eta, gainera, kontraanalisien arabera, mailak zuzenak direla. Nolanahi ere, kontraordenarik ez dagoen bitartean, ezin da debekua kendu. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Orreagako Gatazkaren monumentua**

Alkateak, aurreko bilkuran aztertu zen Orreagako batailaren monumentuaren gaiari dagokionez, jakinarazi du Luzaideko Udalak baimena eman zuela monumentu hori bere herrian jartzeko, beste inolako prestazio edo laguntza ekonomikorik jasotzeko konpromisorik gabe, eta, hain zuzen ere, monumentua Luzaiden jarrita dagoela jada, eta, beraz, ekimena lur-lagapenarekin babesten duela. Remiro zinegotziak galdetu du zein izanen den Udalaren jarrera gai horri dagokionez eta uste du gaia gai zerrendan sartu behar izan zela. Alkateak erantzun du ez zekiela hori horrela zenik, ez baitzen bilkura horretan izan, eta hurrengo bilkura batean gaia sartuko duela. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Kintoko leizeko hondakinak**

Alkateak jakinarazi du leize-zulo bat dagoela Kintoko Guardia Zibilaren kuartelaren ondoan, bertan bizi direnek, behar ez bezala, zaborrez betetzen ari zirela, eta barra erauntsiak dena arrastaka eraman zuela Zubiondo errekaraino, Erro eta Baztan arteko linea administratiboa banatzen duen erreka. Errekan zabor anitz dago eta Urepeleraino doa. Urepeleko alkatearekin eta ibaiak garbitzen aritzen den Baigorriko irabazi asmorik gabeko elkarte batekin bildu zen, eta Urepeleko, Baigorriko eta Aurizberriko eta Erroko eskolekin topaketa bat antoaltzea adostu zuten, ikasleak eraman eta lan hori egiteko. Nolanahi ere, lehenik eta behin, Ibarreko eskoletako zuzendariei galdetu behar zaie ea parte hartu nahi duten. Ekisoain zinegotziak hitza hartu du eta esan du entitateek topaketa hori sustatuz gero, Udalak ere parte hartu beharko lukeela, eredu izanez. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Erroibarko digitalizazio hitzarmena aldatzea**

Alkateak jakinarazi du aldatu egingo dela Erroibarko digitalizazioari eta haren finantzaketari buruzko Proiektu Estrategikoekin hasieran sinatutako hitzarmena, bertan Aurizberriko kontzejuarekin tratatutakoa sartuz, zuntza ez duten herriko beste eremu

batzuetara pasatzeko zangak eginez, zerbitzua eskaini ahal izateko. Berrero sinatu behar denean udalbatzari jakinaraziko zaio.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bidaurreta zinegotziak honako informazioa eman du:

#### **Nafarroa Zinema Lurraldea laburmetraiak**

Bidaurreta zinegotziak jakinarazi du hamar laburmetraiak banatu direla eta Erroibarkoa "Sin un amor" izena duela eta Diego Marcosek zuzenduko duela. Informazio gehiago duenean jakinaraziko du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Orreaga-Zubiri Maratoia**

Orreaga-Zubiri maratoiari dagokionez jakinarazi du izena aldatzea eta Erro sartzea oso zaila izango zela, baina planteatuko luketela, nahiz eta, sartuz gero, udalak konpromisoa hartu beharko lukeen gehiago inplikatzeko eta gehiago emateko, ez 1.000 euroko laguntza sinbolikoa. Diario de Noticias egunkariarekin ere harremanetan jarri zen, eta esan zioten aurten ezin zela ezer egin, baina datorren urterako hitz egingo zutela. Ekarpena 1.000 eurotan geratu zen aurten, baina Erroren erreportajea ON aldizkarian sartzea proposatu zuen, eta ez erreportaje soil bat periodikoan. Horri baietz erantzun zitzaien, ez zela arazorik egongo eta bidaliko ziola, baina oraindik ez dute egin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ekisoain zinegotziak honako informazioa eman du:

#### **Osasunbidea-Larrialdiak**

Ekisoain zinegotzi andreak jakinarazi du aspaldi deitu zutela Osasunbideatik, Larrialdi Saitetik, lehen sorospeneko ikastaroak emateko etengabeko arretako gunetik hoge minutura dauden herrietan, gure kasuan Auritzeko Osasun Zentroan, eta proiektu horretan Zilbeti, Erro, Ardaitz, Esnotz, Aintzinoa, Loizu eta Orondritzeko kontzejuak sartu zirela, eta eman beharreko ikastaroen zerrendak egiten ari direla eta kontzeju bakoitzari materiala emango zaiola, eta dena Osasunbidearen kontura dela. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta galdetu du ea ez den jaso Aurizberriko eskola-jantokiko dirulaguntza eskaerarik. Idazkariak erantzun du aurreko bileran aztertu zela hori, eta ez dela ezer gehiago aurkeztu.

Hasierako onespenean dauden ordenantzei dagokienez, alkateak erantzun du batzordea bildu behar dela, kirolaren eta gazteriaren ordenantzari eta aparkalekuen ordenantzari egindako alegazioak ebazteko.

Remiro zinegotzi andreak galdetu du ea Sorogainen aterpetxetik kanpo bizi den jendea dagoen. Idazkariak hartu du hitza eta esan du Udalean dakiten gauza bakarra dela marokoar jatorriko pertsona batek bere autoan erroldatzea eskatu zuela ibaiaren ondoan, eta hori ezinezkoa zela esan zitzaiola. NEIarekin hitz egin zen, eta hark esan zuten posible zela, baina baldintza batzuk beteta, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen txosten bat izatea. Horren guztiaren berri eman zitzaion eskatzaileari, baina Udaletik berriro agertu ez zenez, ibarretik alde egin zutela pentsatu zen, eta ez da gai horren berri gehiago izan. Alkateak azaldu du berak, hasieran, gai horren berri eman ziotenean, Guardia Zibilari jakinarazi ziola, eta batzuetan Sorogainen ibai ertzean aparkatuta ikusten dituela, eta beste batzuetan ez, eta ez dakiela gehiago. Remiro zinegotziak dio gaia udalbatzarentzako garrantzitsua izan daitekeela.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 22:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.